

**ZUBEROAKO MASKARADAK IZENENKO HERRI
ANTZERKIAREN
AHOZKO LITERATURAZ (1)**

Tolosa, 1998-XI-14

*Kepa Fdez. de Larrinoa,
Antropologia irakaslea,
Euskal Herriko Unibertsitatea*

I. SARRERA

Zuberoako Maskaradak ihauterietako jaiak dira, bertan dantza, soinua, mo-zorroa, kantua, sermoia, koplak eta bestelako ezaugarri estetiko-kreatiboak ba-tzen direlarik. Beraz, Zuberoako Maskaradetan gertakizun batzu ikusgarri dira. Bestetzu entzungarri. Eta beste batzu irakurgarri. Maskaradetan berba prota-
gonista den guneak eta iharduerak frango dira, genero bat baino gehiago ego-
nik. Honako gertakizunak dira entzungarri Maskaradetan: txorrotxen koplak,
buhameen taldearen sermoia, kautereen sermoia eta grafitiak (berauek irakur-
garri dira), kereztuen elkarrizketa, txorrotxen emankizuna, pitxuaren partaide-
tza, medikuaren grafitiak (berauek ere irakurgarri dira), pitxuaren testamentua
eta jokalaria guztiek abesturiko kantua. Txosten honek Zuberoako Maskaradetan
entzuteko diren gertakizunak eta irarkurtzeko diren esaldiez dihardu.

Engungo Maskaradetako gertakizunak goizez eta arratsaldean antzezten dira,
goizeko saioa eta arratsaldekoa ezberdinak direlarik.

II. GOIZEKO SAIOETAKO BERBAK

Goizeko iharduerarik deigarriena barrikadak apurtu edo gainditzea da.
Dantza bereziak dantzatzea ezezik, berbak erabiltzea eskatzen du barrikadak
iragateak. Barrikadetako dantzak bereziak dira. Berbak ere bai. Hiru modutan
adierazten dira goizeko barrikaden inguruan erabiltzen diren hitzak. Batzu **ko-
pla** modura jendaurreratzen dira. Beste batzu **oihu** eta aldrebeskeria gisa. Beste

(1) Txosten hau 1998.eko udan idatzia da, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Sailak Oxford Unibertsitateko Pitt-Rivers Museo Antropologikoan herri estetikatik ikerketa egiteko dirulaguntzari esker. Bihoazkie bi instituzio hauei nire eskerrak.

batzu maskarakaien bizkarretan agertzen dira, **grafitiak** osatuz. Koplak **txorrotzek** kantatzen dituzte. Oihuak, hitz itsusi edo gaiztoak **beltzeriaren** espresibidea da. Grafitiak **kautereen** eta **medizinare**n bizkarretan idazten dira.

Goizeko koplak modu erritualizatu batez kantatzen dira. Segidan ikusi behar dugunez, txorrotzek barrikadaren deuseztapena seinalatzen dute. Barrikadak era honetara gaintzen dira. Lehenbizi, talde gorriaren aintzindariak dantzaren abileziaz jauzi eta hautsi egiten dute barrikada. Ondoren, talde beltzak gaintzen du barrikada. Beltzak fier dira, basa. Beren indar eta gorputz-bultzada inkontrolatuak bidea emanda barrikadaren beste aldera igarotzeko gai dira. Azkenik txorrotzak datoz. Txorrotxen koplak direla medio, barrikada-jarzaileak agurtuak dira, baita eskertuak ere jakiak eta edanak bapo eskeintzearen. Txorrotxen koplak kantatutakoan hausten da barrikada, orduantxe nahasten baitira espazio erritualean elkarrekin errizibitzaileak eta maskarakaiak.

Txorrotzak bi dira. Boz berezia izateagatik dira herriko gazteen artean jorako hautatuak. Bi bozetan kantatzen dute. Txorrotx batek gaina, besteak apala egiten du. Jokoaren dramatizazioan bata *nausia* da, bestea *mithila*. Koplak herriari, etxe bati, pertsona jakinei, ostatuei, jaun merari, apaizari eta zortzen buruari kantatzen zaizkie. Hona hemen exemplu bana (2).

HERRIARI KANTATURIKO KOPLA

Agur Altzüküko herri famatia
 Bazter güzietan beit'estimatic
 Dantzaiekin handi beita batzarria
 Goxoki iganen dügü egünaldia
 (Muskilidarrak Altzürükün 1987.urtean)

ETXE BATI KANTATURIKO KOPLA

Agur Atzükü eta Bordazarria
 Muskildin beitüzie ziek etxaltia
 Gogo hunez gira hunat heltiak
 Eta ez gira orano gü phartitiak
 (Muskilidarrak Altzürükün 1987.urtean)

OSTATU BATI KANTATURIKO KOPLA

Agur eta goraintzi Despoiey ostatia
 Etxe hau ümen da orotan haitia
 Edaria beitüzü merke merkia
 Bena guri hobe dohainik üztia
 (Muskilidarrak Larrañen 1987.urtean)

(2) Irakurlea jabetuko da koplari koplak grafia ezberdina dela. Txorrotzek alde zurretik erabakitzen dituzte kantatu beharreko koplak. Koplak ez ahazteko idatzi egiten dira. Ondoren agertzen diren koplak txorretzek berek idatzitako koplak dira, eta berek erabilitako grafia erreproduzitzen da txosten honetan.

PERTSONA BATI KANTATURIKO KOPLA

Agur eta goraintzi Luxia maitia
 Etxe hunek uhuratü bethi herria
 Germain zena orotan zen estimatia
 Maskada izan dadin haren omenaldia
 (Muskildarrak Barkoxen 1987.urtean)

HERRIKO ALKATEARI KANTATURIKO KOPLA

Egun houn jaun mera familiarekin
 Chorrotchak heben gira ourthe beriarekin
 Chouhetatxen deizugu luzaz osagarri
 Zouri eta zoure familia orori
 (Eskiularrak Eskiulan 1992.urtean)

HERRIKO APAIZARI KANTATURIKO KOPLA

Jinkouak egun houn erretoa zouri
 Hitzemaiten deizugu goure lagunekin
 Huntza libertitzia ahalaz ouneski
 Maskada hau ountxa joun dadin osoki
 (Eskiularrak Eskiulan 1992.urtean)

ZORROTZEK BEREN BURUARI KANTATURIKO KOPLA

Gois hountan jeiki gira bestala joaiteko
 Bidia franco luze egarritxeko
 Ukeinten badugu ardou edateko
 Aisa dereiziegu gero kantatuko
 (Eskiularrak Eskiulan eta beste herrietako emankizune-
 tan 1992.urtean)

Beltzen berba goizeko barrikadetan, ordea, oihua da, etengabe *uha, uha, uha* oihukatzen dute-ta. Baita ere, publikoarekin elkarrizketak inprobisatzen dituzte, normalean adrebeskeriak edo gaiztokeriak aipatuz edota antzetzuz. Talde beltzaren jokalaria zenbaitek esaldiak daramatzate bizkarrean idatzita. Esaldiok oso telegrafikoak dira. Kautereak eta medizina dira grafitien eramaleak. Ikus ditzagun adibide zenbait.

Muskildiko Maskaradan 1987.urtean:

KABANA HANDIAREN BIZKARREAN:

koxoa, ardoa, barake, auhera, nausia, aderekai handia

KORTATU IZENA EMANDAKO KAUTEREAREN BIZKARREAN:
kortatu soinuaz pitotu!

NANAMALIBU IZENA EMANDAKO KAUTEREAREN BIZKARREAN:

la nana malibu oro emaztik salbü

PITXUAREN BIZKARREAN:

pitxu ez asto pour un sou

Altzürüküko Maskaradan 1992. urtean:

KABANA HANDIAREN BIZKARREAN:

gazoduka manexilat, esne! oduka Xiberulat

POU POU IZENEKO KAUTEREAREN BIZKARREAN:

Rabbi Jacoben dizipulu zaharra

FRIPOU IZENEKO KAUTEREAREN BIZKARREAN:

Lana partida manhia gogor laketago bestan

PITXUAREN BIZKARREAN:

emazten inganiou, edera baitou

Eskiulako Maskaradan 1992. urtean (3):

KABANANA HANDIAREN BIZKARREAN:

baliouja, nauzi-hobena, nana luzia

PUPUNA KAUTERESAREN BIZKARREAN:

pilülakai, jaunkai eta ... kai

FRIPUNA BATA IZENEKO KAUTERESAREN BIZKARREAN:

neskatila gaztia, lazkarriko salazkaria

PITXUNAREN BIZKARREAN:

deabrüxar handiena, houa!, eta gaxtuena, Houa!

Alkohola, aipamen sexualak eta aginteaz ironizatzea izaten dira idazgaiak. Normalean ametitzen ez diren portaerak aldarrikatzen dira. Medizinek ere grafitiak daramatzate euren jantzieta zehar idatzita. Medizinen grafitiek sendagileei buruzko parodiak dira, sasi-sendagile edo harakinaren irudiak hedatuz. Sasi-medikuen nahiz kauteren grafitien ortografian ezberdintasun ikaragarria susmatzen da herriz herri eta Maskaradarik Maskarada. *X/ tch/ts/ tx/ tz, r/ rr/(, t/th, ü/u, s/z, i/i, kh/k eta ou/ u* ohi dira elkarrekin gehien nahasten diren hizkiak.

(3) 1992. urtean Eskiulak antolaturiko Maskaradaren partaideak oro emakumezkoak izan ziren, eta ondorioz Maskarada emaztetu zen. Maskarada emaztetu izana arlo ezberdinetan nabarmendu zen: besteak beste pertsonaien izenetan (kabana ← kabanana; buhamea ← buhamesa; pitxua ← pitxuna); txotxotxen elkarriketan (diat ← dinat; diagü ← dinagü); sermoien edukieran eta Maskaradaren beraren interpretazioan. Ikus. *Mujer, ritual y fiesta*, Kepa Fdez. de Larrinoa, Pamiela, 1997.

III. ARRATSALDEKO SAIOEN BERBAK

Aintzindarien dantza mugimenduekin eta beltzeriaren basa gorputz-higimenduekin batera hitzak badu toki aparta arratsaldeko saioan. Goizeko berba bezala, arratsaldekoa ere kodifikatuta dago jendaurrera. Alegia, modu zehatzetaxaturik jendaurreratzen dira arratsaldeko berbak. Honakoxe jokoetan du inportantzia handia berbak: kereztuen jokoan, zorrotzen jokoan, buhame jaunaren pheredikian, kautere gehienaren pheredikian, pitxuaren testamentuan, azken kantoian, eta joko bakoitza aurkezteko zorrotzek abesturiko kopletan.

IIIa. KEREZTUEN JOKOAREN BERBA

Kereztuak bi dira, nagusia eta bere ikasle laguntzailea. Jokoa dantzaren eta elkarrizketaren bitartez gauzatzen da. Bearnesez mintzatzen dira arizaleak, ideialki bederen. Zeren nire ikerlanean zehar, haatik, portaera ezberdinak gerta daitezkeela ikusi baitut. Adibide batzuren berri ematen dut segidan.

Altzürüküko 1992.eko Maskaradaren errepetizione eta plazako emankizunetan ikustaukera izan nuenez, kereztuek dantza ederki egiteari garrantzitsuago oneritzi zioten altzürükütarrek, bearnesez behar bezala mintza eta ahozkatzeari baino. Izatez, bearnesaren beharrean euskeraz hitzegin zioten kereztuek elkarriz euren jokoan zehar, salbu bizpahiru esalditan. Gainera, publikoan Hegoaldeko euskaldunak zeudela zekitenean, hitz espainolak tartekatzuten zituzten beren jokoaren elkarrizketan.

Muskildiko 1987.eko Maskaradan, ordea, bestelako exenplua dugu. Muskildiko kereztuek bearnenez eman zuten beren arteko elkarrizketa. Normalean elkarrizketa estereotipatua da. Maskaradarik Maskarada errepikakorra, hots. Hala ere, kereztuen betiko elkarrizketa zaharberritzea erabaki zuten muskildiarrek urte hartan. Xede horretan herrian suertaturiko pasadizo bat sartu zuten: Aphalangai izeneko pertsonaren istorio bitxia jokorako moldatu zuten, alegia. Muskildiarrek ondutako kereztuen testua *Nekazal gizartea eta antzerki herrikoia Pirinioetako haran batean* izenburuko idazlanean argitaratua dut (4) eta hara joatea eskatu behar diot irakurle jakinguratsuari. Muskildiko Dominika Agergaraik esan zidanez, Muskildiko kereztuen hizkuntza ez zen benetazko bearnesa. Agergaraik zioenez, Muskildi herria Biarnotik urruti egoteagatik, muskildiarrek ez dakite bearnesa inondik inora ere. Ondorioz, kereztuen testua osatzeko, bearnes batengana zuzendu ziren Maskaradaren antolatzaileak. Kereztuek testua buruz ikasi bazuten ere, jatorrizko fonetika ezin zuten ondo begiratu. Eta inprobisazioetan euskera edo frantsesa erabili behar izan zuten, bearnesa ez jakitean. Agergaraik modu honetara deskribatu zuen bere herriki-

(4) Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1993, 149-151. orrialdeetan.

deen bearnesa: frantses bastardo. Alegia, bearnes-kutsuko frantsesa hitzegin zuten Muskildiko kereztuek.

Eskiulan dut hirugarren exenplua. Eskiula Biarnon dago, beraz, bearnesaren berri badakite. Eskiulako 1992.eko Maskarada gertu-gertutik jarraiki nuen. Herri honetan kereztuen elkarrizketa asko landu zen, eta bereziki jokoari dagokion teatralitatea, Altzürükü herrian gertatu ez zena. Eskiulan kereztuen dantzak toki txikiagoa hartu zuen, kereztuen arteko elkarrizketari inportantzia handia emanez. Eskiulako Maskarada honetan kereztuen jatorrizko mintzairari garrantzia eman zitzaion, zeren baitzekiten audientzian biarnotarrak egonen zirela. Ondorioz, kereztuen jokoaren benetan deigarria izan zedin egiazko bearnesez mintzatu behar ziren kereztuak. Areago, kereztuen elkarrizketa sinesgarria izan zedin, bearnesa behar bezala hitzegiteaz gain, ongi antzeztu behar zituzten gorputz mugimenduak eta keinuak. Betebehar hauexei eustean, elkarrizketaren beraren antzeztuaren kalitate gorena ekarri zioten Eskiulako kereztuek.

Honaino, beraz, hiru adibide. Lehenengoa Altzürükun izan dugu, non kereztuek sakon landu baitzituzten dantzaren puntuak, testuaren kalitatea linguistikoki, literario eta teatralari kasu gutxi egin zielarik. Bigarrena Muskildin izan da, non betiko testuari freskura txertatu nahi izan baitzitzaion berrikuntza zenbat erantsiz. Hirugarrena Eskiulan, non elkarrizketaren teatralitatea eta hizkuntza sendo landu baitziren.

Kereztuen jokoa Pitxuek parte hartzen du. Pitxuaren partaidetza inportantea da kereztuen jokoa. Pitxuek kereztu nagusiarekin pasadizo bat antzeztu du, bearnesez. Euskaraz ere hitzegiten dute, bi hizkuntzak nahastuz. Bearnesez eta euskaraz elkarrizketak jakinak dira, zeren eredia dago. Eta finkaturiko ereduari jarraitzen diote jokalariek, inprobisatzen dutenean ere. Joko honetan nortasun-irudi zehatzak nabarmentzen dira, lanarekiko jarrera zenbait aipatuz.

Kereztuen elkarrizketa idatziz heltzen da jokariengana, normalean aurreneko Maskaradako kereztuengandik. Barkoxe edo Eskiula edo Biarno aldeko lagun batengana zuzenduta edo ezagun baten bitartez eskuratzen da kereztuen testu bearnesa. Ohitura da kereztuek testua eskuz berriedaztea. Maskarada egunean patrikan eramanez dezakete, bazter batean bakoitzak bere artean errepikatze, plazara elki aitzin. Hona hemen 1992. urteko Eskiulako Maskaradaren kereztuen elkarrizketa.

Nagusia:

bam bailet, qu'abem pla minjat, pla bebut é pla cantat, mes adaro n'ey pas tout, qué ba eále triballa drin.

Laguntzailea:

triballa?! diou biban!! e un dimenje enguero?!?
 qu'es haou ou qué?!? n'ei pas brigo hami de triballa sus semmano e tu,
 qu'em bos ha triballa u dimenje, que pos ana couré!!!

Nagusia:

que bedet aco! ... aquestes gians hils de putes ne bolen pas mei ha arré
 adaro!!

aaah! pla minja, harta é rruseilla t'aou rodeo, aco qu'at saben ha aquets
 maquarés!! é ques pasarén la semmano adayso en ha la boumbo tout sé!
 ataou que seré pla, nou?!?

Laguntzailea:

qué seré, per diou, hero, hero pla!!

Nagusia:

adaro prou descounat! que baou uesta aquet chibaou, d'abor é? m'enté-
 nes??

Laguntzailea:

bam ... si bos ... mes ta ha aquet triball quem caou 30 pistolos

Nagusia:

trento pistolos?! trento cops de pé aou cu qué bas abé! ... dap vinté cinq,
 que nas, per diou, prou!

Laguntzailea:

bai caca tanto! ... jou qué bouy trento pistolos! 25 a queste heno qu'ey a
 la CGT o MLF, o qué!

Nagusia:

binté sept é mieyo

Laguntzailea:

anem haout! ... mes aban de triballa que bam bébé u cop

Nagusia:

ah nou é!! ... qu'ei toutu caoucaré aso ...
 adaro qu'as bebut! ... alabets bem couéyé aquet chibaou ... é biste!

Laguntzailea:

oh hoou! ... dousseya drin é! ... abans de ha auet triball, que bam dantsa
 drin ... quei dimenje nou?!?

Nagusia:

Bam ... dantsa drin é après triballa é?
 —dantsa egin ondoren morroia zaldiaren bila doa eta ...—

Laguntzailea:

sai, sai, sai ... sai t'asi chibaou! ... sai ...
 —zaldia alde egiten dio eta—

Nagusia:

gran hil de puto qué l'as lechat parti!! fou'me lou cam d'asi, praoube de-sestrac!

Nagusia:

adaro que souy beroyo tout soul ta crestá u chibaou! ... Ah mes, qu'i pensidador ... que ya u noumat pitchuna ques parech que triballa de couan en couan ... qué ou bam aperá d'abor ... haou, pitchuna haou!!!

Pitxuna:

oohh! doussemen ... jou qu'ey heit drin la boumbo é ouey qué souy drin malaou ...

Nagusia:

malaou?!? qué souy beroyo!! jou qui t'aperabi ta triballa ...

Pitxuna:

triballa?!? si'm parlos di triballa qué'm couchi d'abor

Nagusia:

si bos gagna couaté sos ta ba la besta, be'm cerca aquet chibaou, que'n as ta cin minutos

Pitxuna:

bam ... cin minutos qu'ey biste heit ... q'uy baou d'abor ...
—pitxunak kantiniersa harrapatzen du zamalzainaren lekuan—

Nagusia:

gran destruk!! ne m'as pas amiat u chibaou nes no pourio!
é lou triball qu'ey ta ba, é qué souy enguero tout soul ... oun'ey lou baïlet adaro? hoou ... baïlet hoou!

Laguntzailea:

qué bos enguero?!? ... qué m'as foutut dehoró, é adaro qué m'apéros?!?

Nagusia:

ne't faches pas amic! qué bam ha quacucaré tous dus amassos. Né sei pas so que mé arribat?: quei embaouchat u triste gil, é qu'éro hero mey destruk qué tu.

Laguntzailea:

si mas aperat tam cise aquero, qué m'en baou: nou, nou, demouro't así ... que bam cresta aquet chibaou abans la noueïl, é après qu'aneram bébe u cop ou dus e dilleou tres

Nagusia:

alabets qu'y baou d'abor

Nagusia:

oh! hil de puto! sé kochkollak!

IIIb. TXORROTXEN JOKOA

Txorrotxen arratsaldeko jokia Maskaradaren jaunaren zapata zorroztea da. Pasadizo hau modu erritualizatu batez suertatzen da. Iharduera batzu koplak kantatuz osatzen dira; beste batzu hitz lauaz; beste batzu kantua abesten, eta bestetu dantzatuz, zeren pasarte ezberdinak baitaude, bakoitzak bere espesabidea eskatzen duelarik. Hontaz, txorrotxen ibilaldiak dantzaz adierazten dira. Jaunaren ezpata zorrozten dutela, kantu bat abesten dute zorrotzek. Txorrotxek jaunari eta elkarri kopletan *mintzaten* zaizkio. Abestuz edo hizketaz zorrotzek euskaraz berba egiten dute.

Kereztuena jokoan bezala, pitxuak badu bere tokia txorrotxen jokoan, txorrotx nagusia lagundu behar baitu jaunaren ezpata zorrozten. Antzeturiko irudi eta ideia kulturei begira, txorrotxen jokia eta kereztuena antzekoak dira. Biek tankeratzen dituzte oso irudi, ideia eta nortasun sozial estereotipatuak: alperkeria, tratuetarako abilezia, zuhurtasuna, arduen aurrean erantzunkizuna, eta abarrekoak. Txorrotxen jokoan ere gorputz higimenduak inportanteak dira. Txorrotxak mugitzen dira koplak kantatzen eta hizketan ihardutean, normalean inguruz. Dominika Agergaraik prestatu zituen 1993.eko Urdiñarbeko txorrotxak. Errepetizioetan behin eta berriz errepikatzen ziren txorrotx-erreetak txorrotx-ikasleei *zinema* egin behar zutela jokoan zehar

Jean Tout Haispe Irachet eta Gerard Orgambide txorrotx ari izan ziren 1983. urtean Eskiulako Maskaradan. Ondoren ikusiko denez, Eskiulan txorrotx nagusiari buruzagia deitzen diote. Honako koplak kantatu zituzten ezpata-zorroztearen jokoan.

Buzagia:

Alo ene mithila, behar duk phartitu
Ezpata zorroztera, Jaunari galthatu
Errotaren unguatzen, hik beitu espantu
Feitioa zer balio dian, ikhousiren diagu

Mithila:

Ene errotaren unguriak parerik ez dizu
Munduko hoberenari joku egin niozu
Nik ungararitzen bezala zorrozten baduzu
Baté afrountuik gabe jelkhiren gutuzu

Buzagia:

Alo ene mithila unguä ezak errota
Eztiagu ez zorrozten Jaunari ezpata
Eztakiat ala hik dianeaz ogerena

Mithila:

Pelatez naizia nahi pakhatu
 Coumplementía ere ejer bassitassut
 Lehenago bilhaskan aritzen guntuzun
 Apho sanko ehfa balio betseitzun

Buzagia:

Alé oficio desolagarria
 Lana ukhen eta langileik gabia
 Juratzen diat juratzen bai ene fedia
 Imposible dela hola bizitzia

Txorrotzek elkarrekin ezpata zorrozten duten bitartean, bi bozetan kantu bat ematen dute. Normalki, kantu hau Zuberoan ezagutua ohi da, usu Etxaun-Irurik ondutariko bat. Halaber, arratsaldeko saio osoan zehar txorrotzek beste jokoak aurkezten dituzte, bakoitzari kopla bana kantatuz, publikoak zedatzen duen kanpo-antzeztokia barnetik, ibilka eta lepotik elkarri helduta, inguratzen duten batera. Hona bi adibide:

Kautereen aurkezpena:

Huna hiru kautere St Gaudenseko
 Bertz zahar bat bizkarrian orotarik zilo
 Ezpeitia kapable haren betatzeko
 Haleikere badie ezpantia franko

Buhameen aurkezpena:

Buhame debru horik lanik egin gabe
 Arraza debru hori bizi dirade
 Aberatsik horre gatik ezta ihure ere
 Aldiz sorthiak oro uhuñak dirade

IIIc. BUHAME JAUNAREN PHEREDIKIA

Taldearen mugimendua eta elkarrekintzak biziki inportanteak dira buhameen jokia sinesgarria eta onargarria izan dadin. Herri bateko gazteek Maskarada bat antolatzea erabakitzen dutenean, Zuberoako eta beste herritako plazetan antzezten dute euren emankizuna. Emankizunak eskatzen du buhameen sermoi bat esatea arratsaldeko jokoan. Plaza guztietan sermoi berbera aldarrikatzen dute buhameek. Sermoiaren erralea Buhame Jauna da, nork sermoia edo pheredekia ahoz zabaltzean bere buhamekideen bultzadak eta kontrako iritziak burukatu behar baititu. Honetaz, maiz gertatzen da Buhame Jaunak zerbait esan ondoren haren lagunek **ez dük hala!** kontra egitea, eta Buhame Jaunak arrapostu gisa **hala dük! hala dük!** biziki indartsu ihardestea. Buhameen jokia ezpaten sasi-dantza bat dantzatuz bukatzen da. Sasi-dantza iritzi behar zaio, ze-

ren oso trakets eta basa mugitzen baitira buhameak, elkarren artean komunizatuta gutxi azalduz.

Sermoiak bost ataletan banatzen da. Lehenengoan herria agurtzen dute. Ondoren, beren buruak aurkezten dituzte. Gero, buhame jaunak kontaktzen du nola izendatu zuten bera buhame guztien erregetzat. Jarraian, buhameen ofizioa zertan den adierazten dute. Segidan, harat-honateko jendea direla —beti bidaiari ari, alegia— aitortzen dute, nongo herrietan eta tokietan izan diren ezaugarritan dutelarik. Buhameen portaera oso estereotipatu da, eta sermoien fonetika eta musikalitateari garrantzia handia ematen zaio. Berau atal bakoitzean erabilitako neurri eta errima gisetan nabarmentzen da. Esandakoaren adibidea du irakurleak lehen aipaturiko *Nekazal gizartea eta antzerki herrikoia Pirinioetako haran batean* idazlanaren 151-153. orrialdeetan. Baita ere deigarria da buhameen sermoian bai gorputzaren zuloak eta bai berauek kanporatu edo barneratu ozenki aitatzea.

Sermoiaren egilea ez da Buhame Jauna. Buhame Jaunaren betebeharrak pheredikia antzeztu egitea da. Buhame Jaunak beste norbaitengandik jaso egiten du testua, normalki bere herriko aurreneko Buhame Jaunarengandik. Sermoi behin eskuratuz gero, paper batean bere idazkeraz berridatzi eta buruz ikasiko du. Errepetizionetan ikasiko du emandako testua nola antzeztu, edo zer aldatu, beti aurreneko Buhame Jaunaren eta beste maskarakaien gidaritzapean.

III.d. KAUTERE GEHIENAREN PHEREDIKIA

Kautereen jokoan lau pertsonaiak dihardute: kautere jauna —baita ere kabana handia edo gehiena deitzen zaiona—, fripu, pupu eta pitxu. Kabana handiak azote bat esku batetan duela, besteak liburu antzeko zerbaiti deitso. Azoteaz beste kautereak lanarazi nahi ditu. Liburutik irakurtzeaz kontu eta gorabehera kritikagarriak aldarrikatzen ditu. Azotearen eraginaz, Maskaradako Jaunari konpondu behar zaion bertzean behar bezala kautereak ari daitezen nahi du kabana gehienak. Liburutik irakurtzen duen sermoia lau haizeetara zabaltzean bertako herritarren okerrak edota irrigarriak jakinarazi nahi ditu. Publiko eginarazi, hots.

Buhameen kasuan ez bezala, kautereen sermoia herriz herri ezberdina da. Bisitatutako herrian urtean zehar gertaturiko xeblekeriak aipatzea da kautereen pheredikiaren funtsa. Buhameen kasuan bezala, antzezturiko testua ez dute plazan diharduten kautereek osatzen. Beste norbaitek edo norbaitzuk, orde. Alegia, Maskarada berri baten kautereen sermoia aurreneko Maskaradako kautereek osatzen dute. Kautere zaharrek bi gauza hartzen dituzte kontutan kautere berriei eman behar dieten testuaren osaketan. Bateko, kautere zaharrek euren testuaren egitura eta estiloa begiratzen dituzte, ahapaldi erretoriko batzu mantenduz. Besteko, bisitatu beharreko herrietan kritikagarri, salagarri edota ba-

rregarri zer den bildu, landu eta sermoian sartu behar dute. Beraz, herrian herriko berriemalengana jo beharrean daude.

Kauteren pheredikiak oso tokikoak direnez gero, ulergaitz izaten zaizkie kanpotarrei. Sermoian esaten denaren berri herrikoek bertakoek bakarrik jakiten dutenez gero, bertako berri ez dakienak ezin du jarraitu aipatzen denaren ironia. Nola sermoia ez baita paperean gelditzeko hitz-bilduma bat, kautere nagusia erritmo eta akustika zehatzei datxekie pheredikia irakurtzen duenean. Gehien erabiltzen diren errimak hauexek dira: *-ia*, *-tzeko*, *-ik*, *-tzen*, *-tü*; *-ou* bukaera arrunta da, normalean frantses hitzak erabilia suertatzen dena. Jakingarria da *-ou* bukaerako frantses hitz errimatuek barre-algara handienak sortarazten dituztela. Hona hemen 1992.eko Eskiulako Maskaradaren kautersa gehienaren pheredikiak herriz herri errepikatu zuen testua:

Arresti hun!
 Plaza huntako so egiliak
 Kharrika huntako eta üngürüneko jentiak
 Bestetako bizizaliak
 Adinekuak eta gaztiak
 Gizon eta emaztiak
 Handiak eta txipiak

Horra gira Eskiulatik gaiza hanitx ikhasirik!
 San Pierra plazako ozoniak
 Eskiulako bestetan thiraturik ase ederrik
 Faktura faltsü iganazik

Eta ikhusirik izigarria
 Irak-eko gerla berria
 Alemañako mürrü desegitia
 Rusiako demokrazia
 Eta Rokarren demisionea

Sorthü gira
 zopa egiteko, untzi xahatzeko eta gizon errabiatzeko
 Badakigü jaten, edaten eta josten
 Haur egiten, sortzen eta hazten

Bizitzen gira
 arrautze küsküz, oillasko aztaparrez
 Eta üsü pilülaz
 Gizon tzar horiek oxagarri izigarria beitie
 Holako apaidutik landa gü cudez ari gira lanian

Horra gira xiberotik
 Galtzen eta azkenian bertzen bethatxatzera ... (5)
 Jakinik heben bazterrak oro xilo zirela salbü ... godaletak
 Gaiza bat da segurrik:
 Gü gira ofiziale famatiak
 Lau emazte horiek eta ni ...
 Lau neskatila horik arauz orano neskatila dira?
 Bat hau ja segür emazteturik dügü aspaldian! ...
 Mentüraz badaki nula plantatü behar den! ...
 Bertz bethatxatzeko phü ...
 Hori Pitxuna
 emazte ezkontia, langile hoberena ...
 txipi da bena hardita da ...
 badü defaut bat: eztü mihia xakolan ...
 Gaixo senarra !!!
 Bena untsa abenitzen dira:
 Biak kozinan azkar beitia ...
 eta jaten hanitkez azkarrago ...
 Hori pupuna
 Bürü gogorra, pelotakaria eta ber herotsian potikokari
 Añaña eijerra: ez da lotsa potikuekilan pedoskan aritzen
 Ari da egün oroz besten haurren begiraten ...
 ezpeitu esküla berak egiteko etxekuen baimenik ükhen ...
 Horik fripuna bakinak
 karkaza handiak, sabatian laket
 Üsu ari dira ostatian khantatzen
 Salbü Eskiulan, ez da estunagarri
 Etxekuak karrikan beian egoiten dira
 Horik beitia eskolan ikhasten
 Aitak ezari dütü kaute
 Hurak beitira goizenik erritiratzen
 Eta NI KANANA lüzia
 Mutxurdin horien bürüzagisa
 ama familiazkua
 emaztik behar duk nik bezala:
 eder bulharra
 mehe aztalbeharria
 zabal anka
 Bilho gabe ... besapia
 Pinrüstaturik begithartia

(5) Testuan zehar ... marka erabili dute Pitxunak zeredozer erantzun behar duela gogoraz-
teko.

bi ziloekin ... südurra
 Eta bizarra behar den lekhian.
 Behin izan ginen Parisen
 Eihera gorrian lanian aritzera
 Egünaz erdi bezitürük ari ginen dantzan eta lanian
 eta gaiez erdi pikarraí hanitxex haboro
 Nausik igorten beikuntian
 Arrua uhunpe batetan gizonen harrotzera ...
 Bena negia jin zen
 Kharruntaturik eta marfundi
 Xiberulat arra jin ginen
 Xüthondo xokhulat berotzera

Goiko testua herri guztietan errepikatzen zuen Eskiulako kauteresak. Ondoren, **karrikako berri** ematen zuen. Alegia, Maskarada antzezten zen herriko gorabeherak aipatzen zituen, plazan bildutakoen barreak sortarazi asmotan. Pheredikia **amen** erranez bukatzen da. Kabana gehienaren testuetan zati batzu bereiztu ahal dira. Lehenengoan plazako audientzia eta bisitaturiko herria agurtzen dira. Agintarien diskurtso formalen erretorikaz baliatzen dira, diskurtsuaren erretorika bera irrigarri agertuz. Bigarrenean jende ibiltariak direla frogatu nahi dute. Buhameen eta kautereen pheredikietako irudia da bidaiak irakasle direla azaltzea. Maskaradetan halako irudiaz trufa egiten da, bidaiari asko espantotxeak baino ez direla nabarmenean utziz. Honetaz, buhameen eta kautereen bidaietan ikasia zentzumen arruntezko gauzak direla erakutsi nahi da gisa honetako sermoien bitartez. Hirugarrenean kautere bakoitzak bere burua aurkezten du. Laugarrenean Zuberoara etortzearen zergaitia adierazten da. Azkengarrenean Maskarada errepresentatzen den herrian urtean zehar gertatutako xebrekeriaz trufatzen dira.

Kautereen jokia ez da jaunaren ezpata zorroztearen truk diru-kobrantzarekin bukatzen, zeren kobratu orduko Pitxua hiltzen baita. Kabana handiak pitxu zenaren testamentua irakurtzen du. Hona hemen 1992. urteko Eskiulako Maskaradak Barkoxen irakurritako Pitxunaren testamentuaren zati bat:

Ountxa zen Pitxuna! Bazin hountarizona!
 utxi deïku testamentu hau ... Eakouriko deïziet:
 Uzten du: bere haurrak, bere xenharraí
 be zenhara, hartu nahi dinaí
 Zuhetatzen deïo ... lazgariko oxagaría!
 Uzten du: erhatz bat herriko kantonieaí ...
 Uzten du: be fusuil zahara aphezaí ...
 Holçarten ursokan aítzeko!
 Guelhaíxaí usten du be agenda beria, héritarer
 eraíteko, nouiz apheza libre den, hoien
 ezkontzeko edo ehorzteko.
 Khuña uzten du herriko emaste gazte hoier ...
 biba ziek eta xantza houn!

IIIe. AZKENEKO KANTOIA

Bukatzeko, eta moneinak dantzatu aitzin, maskarakaiak biltzen dira elkarrekin kantu bat emateko. Normalki kantu berria da, espreski egina. Hona Eskiularsek 1992.eko Maskaradan kantaturikoa:

Khanta dezagün gogotik
Zahar gastik harrotürrik
Desiratüz osagarri
Pentsa bethi ESKIULARI

Agur adixkidiak esker milak zier
Eman deiziegü amodio bezain plazer
Zer othe balio dü orai bizitziak
Ez badütügü zaintzen gure deskantsiak

Xibero xoko ejerra eskual lilia
Zurekin date gü uduri den gazteia
Gure zaiñetan odola kurritzen bero
Bizi bedi orhidüra orai eta gero.

IV. AZKEN HITZAK

Artikulu hau ikerketa luzeago baten zati txikia da. Delako ikerketak *Berebarekiko etnografia* du izena, bertan Maskaradan antzezten diren testuen gorabeherak azertzen direlarik. Arestian aurkezturiko testuek, eta oro har *berebarekiko etnografia* deritzan ikerketak erakusten duenaren arabera, honako ezaugarriak garrantzitsuak dira Maskaradaren testu literarioei buruzko gogoe-tan. Lehenbiziko ezaugarria da testuaren antzezleak eta sortzaileak pertsona berberak ez izatea. Normalean, aurreneko jokalariek erakusten diete berriei nola eta zer jokatu (kantatu, erran, oihukatu...), zer hori idatziz iragaten delarik. Idazkuntza ezaugarri inportantea da Maskaradetan transmisio kontuetan. Kautereen, buhameen eta zorrotzen koplak idatzi egiten dira, eta idatzita ematen dira herririk herri eta belaunaldiz belaunaldi, oraingo Maskaradetak antolatzean bederen. Areago, goizeko barrikadetan txorrotzek, koplak berriak osatuko baliuzte ere, berauek idatzi egiten dituzte ikasi eta kantatu aurretik. Idazkera oso ezberdina izaten da herririk herri. Eta herri bakoitzean berdin gertatzen da urte ezberdinetako Maskaraden artean. Grafia gisa bat baino gehiago dago, grafia frantsesa eta zubereraren tokian tokiko ahoskera herrikoiak libreki nahasten baitira noiznahi, nonnahi eta nolanahi testuetan zehar. Bestalde, arratsaldeko beltzen mintzaldiak aginte zibilak eta erlijiosoak erabiltzen dituzten hizkuntza erretorikoaren iraulpena edo karnabalizazioa dira, partikularzki apaizen eta notarioen formula erretorikoenak.

Kopletan eta pheredikietan zati batzu errepikakorrak eta erretorikoak dira. Beste batzu, ordea, berriak, mementurako espreski asmatuak. Kopletan eta pheredikietan jakinarazten dena oso lekukoa da, beraz aktoreak buruan duen audientzia bisitaturiko herria da. Bestela esanda, linguistiko, sozial eta komunikatikoki ikusita, Maskaradak osatzen duen komunitatea txikia da, maskarakaiaik eta berauek bisitaturiko herritarren artekoa.